


BALOREZKO PROPOSAMENA

Guztion beharra da norberaren ondasunak babestea. Horretarako, erabiltzen ohi diren baliabideak giltzen bidez ixten diren giltzarrapoak edo sarrailak dira. Baina, zergatik eraman behar ditugu giltzak beti gainean haien erabilera saihestu ahal badugu segurtasuna hobetzen dugun bitartean? Galdera horretan oinarritu gara gure proposamena garatzeko.



Segurtasuna errazagoa egiteko hatz-markaren bidez funtzionatzen duten giltzarrapoak proposatzen ditugu. Izan ere, gure hatz-marka imitaezina da, eta, horri esker, gure ondasunak lapurretatik askoz babestuago egongo dira giltzapean egongo balira baino. Egunerokotasunerako oso tresna lagungarria izan daiteke, edozein momentutan inolako giltzaren beharrik izan gabe gureak diren gauzak salbu mantentzeko aukera izango dugulako. Baliagarria izan liteke kasu askotan, hala nola bizikleta lotzeko, bidaiatzen gaudenean gure maleta seguruan mantentzeko, takilak ixteko etab. Eta ez dugu giltzez gehiago kezkatu beharko, ezta gure giltzarrapoa irekitzen duen zenbaki-konbinazioa buruz ikasi behar izateaz ere.

Giltzarrapo honek, argi LED batekin dator. Honen funtzioa, giltzarrapoaren funtzionamendua konprobatzea da, hau da, irekitzerakoan, ixterakoan edo karga agortzerakoan argiaren keinadak abisu bat ematen dute. Irekitzerakoan normalean keinadak egingo ditu edo argi berde batekin abisua emango du, eta gorriak, aldiz, ixterakoan edo bateria agortzerakoan. Bateriaren iraupena 5 hilabeteetakoa da eta behin agortuta bakarrik USB batera konektatu behar da, mugikor baten moduan.



Dudarik gabe, aldaketa handia ekarriko du produktu honek segurtasunaren esparruan, gure gauzak babestea inoiz baino errazago egingo baitu proposatzen dugun tresna honek. Umeei bereziki zuzendutako diseinuak egongo dira ere bai, etxeko txikienak giltzarrapo hau erabil dezaten.